

# Alterkaria

Alternatibaren aldizkaria, 4. zbk.

2015eko udaberria



## INDARRAK BILDUZ

Reforzando la unidad de acción  
de la Izquierda Soberanista Vasca

### Iritzia / Opinión

De la pobreza energética a la miseria moral  
Garai erabakigarriak  
Unicornios enjaulados  
Berdintasun legea, zer ospatu gutxi  
Opresores patriarcales y lacayas del sistema  
¿Ruptura o reestructuración del régimen?

### Berriak / Noticias

Terrorismo matxista  
Marchas de la dignidad  
Askapena aurrera!  
Paz en Colombia  
Euskal Bidea  
No al TTIP



## Militantes significativos de Gorripidea se integran en Alternatiba

El pasado mes de febrero realizamos un sencillo acto para anunciar que varias docenas de militantes de Gorripidea, con una destacada trayectoria en movimientos sociales y en la izquierda de Euskal Herria, han dado el paso de integrarse en Alternatiba. Esto suponía la reafirmación de la idea que teníamos los hombres y las mujeres que pusimos en marcha este proyecto hace ya más de seis años.

Decíamos entonces que no veníamos a sumar una nueva sigla en el panorama político vasco sino a trabajar por la confluencia de las fuerzas de izquierda. Una vocación que tomó forma con la puesta en marcha de la coalición Euskal Herria Bildu, y por la que seguimos apostando como herramienta, no solo de transformación política, económica y social para nuestro país, sino también como contraposición a los partidos del régimen, a PNV, PSOE, PP y UPN, formaciones que se limitan a obedecer aquello que dictan los poderes financieros. Sumisión que les permite estar de acuerdo en casi todo; son los partidos que no quieren que cambie nada porque tienen miedo a perderlo todo.

La gente de Gorripidea viene a reforzar la unidad de acción de la izquierda soberanista vasca, aunque lo cierto es que ya venían participando de

la misma, con destacadas trayectorias militantes a sus espaldas, a menudo compartidas con las gentes de Alternatiba. Este paso refuerza, por tanto, al conjunto de Euskal Herria Bildu.

Además de la participación en los espacios militantes, Joxe Iriarte 'Bikila', portavoz en su momento de Gorripidea, se ha convertido también en miembro de la Coordinadora Nacional de Alternatiba, cubriendo la baja en la misma de Jon Lasa.

El día a día nos demuestra hasta qué punto es necesario seguir tejiendo alianzas en la izquierda soberanista frente a quienes se alían para tejer prácticas de dudosa legalidad como la que hemos conocido estos meses en Kutxabank, Hiriko, Bidegi, Karrantza Minda. La ciudadanía vasca está harta de chanchullos, de puertas giratorias y de pactos clientelistas. Es vergonzoso ver como cada vez que surge un nuevo caso nadie conoce a las personas implicadas en el mismo, aunque lo pusieran a dedo en su cargo.

Es más necesario que nunca levantar muros de resistencia y tejer alianzas entre las gentes de izquierda, entre quienes reclamamos soberanía para cambiarlo todo. Y este es un pequeño pero significativo paso en esta dirección.

# Bikila: “Kalea berpiztu behar dugu erakundeetara ezkerre eramateko”

*Gurutze Izagirre BERRIAko kazetariak Joxe Iriarte ‘Bikila’ri eginiko elkarrizketa, 2015eko otsailaren 17an argitaratua.*

## Zergatik erabaki du Gorripideak Alternatibaren bidez EH Bildun sartzea?

Zutik desegin zenean, bertako sektore batekoek politikan jarraitzeko gogo genuen, eta Gorripidea sortu genuen. Baina garbi genuen behin-behinekoa zela. Gaur egungo egoera larria da, eta taldetxo batetik baino indar handiagoa egin behar da, eta jendeak indarrak metatzea nahi du. Gurekin adostasun gehiena Alternatibak zuela uste dugulako batu gara. Alternatibakoak gara, beraz; eta, bidenabar, EH Bildukoak.

## Zein ekarpen egiteko asmotan?


Denok gara erabakitzeko eskubidearen aldekoak, feministak, antikapitalistak... baina horiek interpretatzeko moduak daude. Independentziaren alde gaude, baina gure ibilbidea internazionalismoarekin lotuago dago. Harremanak izan ditugu historikoki Italiako, Kataluniako eta beste hainbat lekutako mugimenduekin, eta horrek eman digu gauzak ikusteko beste modu bat.

## Ezkerreko sentsibilitateen arteko bat egite bat lortu da, baina bidean indar batzuk ere galdu dira, edo galduta daude. Eskuinari ez zaio halako zatiketarik gertatzen, ezta?

Eskuinak morala erabiltzen du jendea batzeko. Baina interes materialak daude, azken finean, eta kapitalaren alde estatu bat kudeatzeak asko batzen du. Ezkerrean, garrantzi handiagoa dute etikak, pribilegioen aurkako borrokak eta printzipioek. Gauza horien ondorioz, zatiketak maiz izan dira.

## Indarrak batzen asmatzen ari al da orain?

Egun uste dut egoera oso larria dela alde guztietatik. Sistema kapitalista oso larri dago. Beharrezkoa da, mugimendu indartsu bat sortzeaz gain, aldaketa instituzionalak eragitea. Urteetan ezkerrean izan ditugu mugimendu oso inportanteak, baina ez gara iritsi erakundeak kudeatzera. Kaleko eskaerak galdu egin dituzte erakundeek, eta biak lotu behar dira. Hori da aldea ezkerrean eta eskuinaren artean. Guk aldaketa nahi badugu, kalearen indarra behar dugu; bestela, ez dago gobernurik aldaketa lortuko duenik. Hori Grezian ikusiko dugu orain. Gobernuak ez badu herria bere alde mobilizatua, itoko dute.



**Ezkerre erakundeetan apenas egon dela diozu. Legez kanporatzeak ezin ahaztu, baina azken urteetan EAJ-PSE-UPN izan dira Hegoaldeko erakundeen buru, PPren laguntzarekin, jaso dituzten**

## bozengatik. Uste duzu aldaketarako oinarriak badela?

Krisi sistemikoaz gain, 1978ko Espainiako erregimena ere krisian dago. Hori oso garrantzitsua da nazio ikuspegitik. Lehenengo aldiz agertzen da III. errepublika; gure aldetik, I. Errepublikaren eskaera agertu da. Trantsiziotik datorren erregimen hori kraskatzen ari da, eta hori kudeatu duen bipartidismoa ere bai.

## Aldaketa espero duzu, beraz.

Baikor moderatua naiz. Baina, batez ere, faltan sumatzen dut azken hilabeteetan Euskal Herriko mugimendu soziala apal eta ezkutu samarrean dabilela.

## Nori buruz ari zara?

Sindikatu ez eta mugimendu sozialez. AHTarena erdi baztertuta dabil, nahiz eta batzuk modu estimagarrian lanean ari diren. Sindikatuak ere ea orain gutun sozialaren harira beste aliantzaren bat egiten duten. Faltan sumatzen dut mugimendu sozialen berpiztea. Hori da beharko genukeen osagarria ezkerre kokatzeko erakundeen buruetan. Kalea berpiztu behar dugu ezkerre erakundeetara eramateko.

## Belaunaldi gazteek agian beste modu batera ulertzen dute aktibismoa?

Badago belaunaldi aldaketarekin gauzak egiteko beste modu bat. Uste dut M-15etik, suminduen mugimendu hartatik, politikan aritzeko grina piztu egin dela, eta gazte sektore bat ia politikan sartu da. EH Bilduk asmatu beharko luke belaunaldi gazteen modu berriak atzematen eta eragiten.

*\*Osorik irakurri:*  
<http://ttiki.com/338466>

## Alternatiba denuncia una nueva víctima del terrorismo machista en Gasteiz y llama a combatir la desigualdad estructural que lo sustenta



La portavoz de Alternatiba y parlamentaria en Gasteiz Diana Urrea, ha denunciado el asesinato de una mujer producido en Gasteiz. Ante el grave incremento de las agresiones sexistas, Urrea ha recordado que “el terrorismo machista es una de las consecuencias más brutales y visibles de la desigualdad estructural” y es por ello, que ha subrayado la importancia de combatirlo “no solo en días negros como este, sino cada día y en cada uno de los ámbitos de la sociedad”.

En este sentido, la portavoz de la formación de izquierdas ha señalado que “los asesinatos de mujeres no son hechos aislados ni casuales, sino la

consecuencia de la forma más antigua de dominación, el patriarcado; un sistema donde las mujeres somos víctimas de múltiples violencias, muchas de las cuales son silenciadas e incluso justificadas por diferentes estamentos, medios de comunicación e instituciones”. Ante esta situación, Urrea ha exigido a todas las instituciones que pongan en marcha iniciativas que “de verdad doten de recursos empoderantes a las mujeres, y especialmente a las jóvenes” resaltando la gravedad de que la última mujer asesinada contara tan solo los 29 años de edad.

Finalmente, desde Alternatiba participamos en las movilizaciones que la Marcha Mundial de la Mujeres convocó en los pueblos y barrios de Euskal Herria para denunciar la muerte de la “enésima víctima del terrorismo machista y patriarcal”.

## Asier Vega Artigas zabortegiaren inguruan “Bizkaiko Aldundiak ez du gardentasunez jokatu, ezta arduraz ere”

Bizkaiko Foru Aldundiak onartu duenez, Bizkaiak ez ditu hondakin guztiak alde aurretik tratatzen zabortegietan utzi aurretik, orain arte kontrakoa ziurtatu badu ere. Hala ikus daiteke hedabide batek argitaratu dituen argazkietan, Artigasko zabortegiaren inguruak tratatu gabeko plastiko poltsez estalita agertzen baitira. Artigaseko baso inguruaren egoerari buruzko azalpenak emateko aurkeztu da Iosu Madariaga Batzar Nagusietan, EH Bilduren eskariz. Tratatu gabeko hondakinak zabortegietara bidaltzeari buruz honakoa esan du: “Hori noiztik da arazo bat? Ze arautegik esaten du hori ezin dela egin?”

Madariagak adierazi egin duenez, Artigaseko inguruak garbi daude dagoeneko. Aldiz, hedabide batek argitaratu dituen argazkiek kontrakoa frogatzen dute. Asier Vega Alternatibako kide eta EH Bildu koalizioko batzarkideak argazki horiei buruz galdetu dio Madariagari. “Irudi hauek ikusita, inguruak garbi daudela ziurtatu dezakezu?” Foru Diputatuak erantzun egin zuen gertakari horiek “normalak” direla eta “txikikeriatzat” jo ditu.

Ingurumen diputatuak ez du argitu ezta ere zergatik bete ziren Artigaseko inguruak plastiko poltsez, zergatik zeuden hondakin horiek tratatu gabe eta zergatik ez ziren behar bezala estali, haizeteak eraman ez zitzaizkien. “Azalpenik ematen ez bada, bakoitzak bere ondorioak atera ditzake” erantzun dio Vegak. “Gure ustez, hondakin horiek alde aurretik tratatu gabe isuri ziren zabortegira eta ez ziren behar bezala estali. Eta beraz, Europak zehazten dituen gomendioak urratu ziren. Gainera, uste dugu hondakin horiek ez direla oraindik garbitu eta Artigaseko inguruetan jarraitzen dutela”.

Aldundiak onartu egin du Artigaseko zabortegira eramaten diren hondakin guztiak ez direla alde aurretik tratatzen, nahiz eta TMB planta ondoan egon. Beraz, agerian gelditu da Artigasko TMB planta ez dela gai hondakin guztiak tratatzeko zabortegira bidali aurretik. “Bizkaiko Aldundiak ez du gardentasunez jokatu, ezta arduraz ere”.



## Alternatibak Gasteizen izandako terrorismo matxistaren biktima berria salatu eta desberdintasun estrukturalaren aurka egitera deitu du

Alternatibaren bozeramaile eta Gasteizko legebiltzarkide Diana Urreak Gasteizen gertatutako emakume baten erailketa salatu du. Eraso sexisten gorakada larriaren aurrean, Urreak “indarkeria matxista desberdintasun estrukturalaren ondorio bortitz eta agerikoena dela” gogoratu du eta honen aurrean, indarkeria matxistaren kontra egitea “egun beltzetatik haratago egunero eta gizartearen eremu guztietan arbuia beharreko aldarria dela” azpimarratu du.

Zentzu horretan, alderdi ezkertiarreko bozeramaileak gogorarazi du emakumeak erailteza ez dela gertaera isolatua edota zorizkoa, menpekotasun sistemarik zaharrenaren ondorioa baizik, patriarkatuaren ondorio alegia; non emakumeok askotariko bortizkeria formak pairatzen ditugun, askotan estamentu, komunikabide eta instituzio batzuek isilarazi eta justifikatu ere egiten dituztenak”. Egoera honi aurre egiteko, Urreak instituzioei exijitu die “emakumeen, eta bereziki emakume gazteen jabetzea benetan bultzatuko duten baliabideak martxan jartzea” azken biktimak 29 urte baino ez izatearen larritasuna azpimarratuz.



Bukatzeko, Alternatibatik Emakumeen Mundu Martxak Euskal Herriko herri eta auzo desberdinetan deitutako mobilizazioekin bat egin zuen, “terrorismo matxista eta patriarkalaren enegarren biktimaren” heriotza salatzeke.

## Asier Vega sobre el vertedero de Artigas “La Diputación no ha actuado de forma transparente, ni de forma responsable”



La Diputación ha admitido que Bizkaia no trata todos los residuos antes de depositarlos en vertedero, en contra de lo que ha afirmado hasta ahora. Las imágenes publicadas por un medio de comunicación en el que se pueden observar los alrededores del vertedero de Artigas cubiertos de bolsas de plástico sin tratar son prueba de ello. El diputado de Medio Ambiente Iosu Madariaga compareció ante las JJGG para dar explicaciones a petición de EH Bildu. Refiriéndose al depósito de residuos sin tratamiento previo dijo: “¿Desde cuándo es un problema? ¿Qué normativa dice que no se pueda hacer?”

Madariaga ha asegurado que los alrededores del vertedero ya están limpios. Sin embargo, las fotografías publicadas por un medio de comunicación demuestran lo contrario. El compañero de Alternatiba y juntero de la coalición Asier Vega, preguntó a Madariaga por las imágenes: “¿Una vez vistas estas fotografías, puede asegurar que los alrededores de Artigas están limpios?” El diputado respondió que este tipo de sucesos son algo “normal” y “pequeñeces”.

“Si no se ofrecen explicaciones, cada uno podrá sacar sus conclusiones” respondió Vega. “En nuestra opinión, esos residuos se depositaron sin un tratamiento previo y no se cubrieron como es debido. Por tanto, se incumplieron las recomendaciones dictadas por Europa. Además creemos que los alrededores no se han limpiado aún y que los residuos permanecen en los alrededores de Artigas”.

La Diputación ha admitido que los residuos que se depositan en Artigas no reciben un tratamiento previo, pese a estar situado al lado de la planta TMB. Por tanto, queda claro que la planta TMB no es capaz de tratar todos los residuos que terminan en los vertederos. “La Diputación no ha actuado de forma transparente, ni de forma responsable”. Según Vega, si la gestión ha sido la adecuada, no debería haber ningún problema en dar explicaciones.

# De la pobreza energética a la miseria moral

*Juan María Sánchez y Asier Vega – Mesa de Ecología de Alternatiba*

El cártel energético, con Iberdrola a la cabeza, los sindicatos de ERE y los políticos de puerta giratoria y sobre fácil han conseguido que todos conozcamos y veamos a nuestro alrededor una nueva expresión de la pobreza que hemos denominado “pobreza energética”. Situación vital consecuencia de sueldos y pensiones bajos, repagos y precio alto de la energía que ha obligado a muchos ciudadanos y ciudadanas a abrigarse con dos o tres mantas, calentar la comida en casa del vecino, elegir los fármacos que compraran y los que no.

Pues ahora, de los mismos protagonistas, conocemos la “miseria moral” de empresarios que despiden miles de trabajadores cuando sus empresas tienen miles de millones de euros de beneficios, compran gobiernos para perpetuar su modelo de negocio. De políticos que por un módico porcentaje miran para otro lado y priorizan la limosna y la caridad para parchear los problemas generados por la pobreza energética en lugar de atajar las causas de la misma. Maximización del

beneficio a costa de las personas y el medio ambiente. Crecer es el nuevo mantra. Consumir más y más energía para seguir creciendo. ¿Utilizando qué energía que no tenemos? Petróleo, importado, hace ya años que se alcanzó el peakoil. Gas, importado, proveniente de países interesadamente políticamente inestables. Fracking, a costa de la destrucción del medio ambiente. Se llevan los beneficios y nos dejan un país inhabitable. Quemar basuras, utilizando gas para seguir contaminando el aire y producir escorias altamente contaminantes. Nuclear, Garoña, nuestra Fukushima. ¿Quién se queda con los residuos nucleares durante los próximos mil años? El hecho de que lleve años sin funcionar y el sistema siga funcionando indica claramente que no es necesaria.

Este es el panorama energético que nos presentan PP, UPN y PNV. Una huida hacia delante de contaminación, insostenibilidad y sillones en consejos de administración. No existe planificación energética a largo plazo que no incluya una apuesta decidida por

# Energia-pobreziatik miseria moralera

*Juan María Sánchez eta Asier Vega – Alternatibaren Ekologia Mahaia*

Energia-kartelak, Iberdrola buru duelarik, Enplegu Erregulazioen sindikatuek eta ate birakarien politikari gutun-azal zaleek, gu guztiok inguruan pobrezia mota berri bat ikustea eta ezagutzea lortu dute; “energia-pobrezia” delakoa hain zuzen ere. Soldata eta pentsio baxuengatik, gauzak birritan ordaindu behar izateagatik eta energiaren prezio altuarengatik heldu gara egoera honetara, non herritar askok bizpahiru mantekin hotzaz babestu behar diren, janaria auzokoaren etxean berotu, edota zein botika erosi eta zein ez aukeratu behar izaten duten.

Bada, oraingoan, protagonista berdinen eskutik, enpresarien “miseria moralera” ezagutu behar izaten dugu, euren enpresek milaka milioi euroko mozkinak lortzen dituzten bitartean, milaka langile kaleratzen dituztenak, eta euren negozio eredia irauarazteko asmoz, gobernuak erosten dituztenak. Politikariek ere jarrera hau erakusten dute, portzentaje txiki baten truke, beste alde batera begiratzen dutenak; energia-pobreziak sortzen dituen arazoei irtenbidea aurkitzeko limosna eta karitatea lehenesten dutenak, oinarrian dauden gaitzei aurre egin ordez. Ahalik eta mozkin handiena lortu nahi dute, pertsonen eta ingurumenaren lepotik.

Hazkundera da mantra berria. Geroz eta energia gehiago kontsumitzea, hazten jarraitzeko. Ez daukagun zein energia iturri erabilia? Petrolioari dagokionez, inportaturikoa, urteak dira “peakoil” delakora heldu zela. Gasa, inportaturikoa, beste batzuen mesederako politikoki ezegonkorak diren herrietatik dator. Fracking-a, ingurumenaren suntsiketaren truke erabiltzen da. Mozkinak biltzen dituzte eta bertan bizitzeko egokia ez den herri bat uzten digute. Zaborrak erretzea, gasa erabiliz airea kutsatzen jarraitzeko eta oso kutsagarriak diren sarra arriskutsuak sortzeko. Nuklearra, Garoña, gure Fukushima. Nork gordeko ditu hondakin nuklearrak datozen mila urteotan? Urteak funtzionatu gabe egon arren, sistemak aurrera jarraitzeak, zentrala beharrezkoa ez dela erakusten du, argi eta garbi.

Hauxe da PP, UPN eta PNV-k proposatzen diguten energiaren panorama. Aurrera begirako ihesaldia, kutsaduraz, jasangarritasun ezaz eta administrazio kontseiluetan betetzen diren besaulkiez osatua. Ez dago epe luzera begirako energia planik, energia berriztagarrien aldeko apustu argia egingo ez duenik. Baieztapen honekin ados daudela diote, nola ez; kontrakoa esatea ez baita herritarren gustukoa.

las energías renovables. Dicen que están a favor ¿cómo no? Decir lo contrario es impopular. Por eso PNV, UPN y PP están locos por el gas del Fracking. El PNV vota en Madrid a favor de un Real Decreto dictado por Iberdrola que da la puntilla a las renovables y al autoconsumo eléctrico, ahora sabemos que vendió a la ciudadanía a cambio de una rebaja en los peajes eléctricos para la industria vasca. Al grito de Euskadi es gasista, locos por los ciclos combinados, Boroa, por quemar basura con gas, Zabalgarbi. ¿Para la ciudadanía? Contaminación, dependencia energética, pobreza energética y caridad.

Por eso apostamos firmemente por un nuevo modelo energético, en el que todos seamos conscientes de la importancia de la energía, sostenible, sustentado en energías renovables pasando necesariamente por un descenso de la cantidad de energía consumida, basado en el ahorro y la eficiencia, descentralizado y en manos de la ciudadanía.

Horregatik, PNV, UPN eta PP Fracking-aren gasarekin zeharo txoratuta daude. PNV-k Madrilen Iberdrolak agindutako Errege Dekretu baten alde bozkatu zuen, energia berriztagarriak eta autokontsumo elektrikoa suntsitzen dituen. Orain badakigu jeltzaleek herritarrak saldu dituztela, euskal industriari bidesari elektrikoetan beherapen bat egitearen truke. Euskadi gasaren alde dagoela lau haizetara zabaldu ostean, txoratuta daude ziklo konbinatuekin, Boroarekin eta Zabalgarbin zaborra gasarekin erretzearekin; eta herritarrentzat, zer? Kutsadura, energia-menpekotasuna, energia-pobrezia eta karitatea.

Horregatik irmotasunez energia-eredu ezberdin baten alde egiten dugu, non guztiok energiengarrantziaz jakitun izango garen; energia jasangarria, energia berriztagarrietan oinarritutakoa, ezinbestean kontsumitzen dugun energia kopurua murriztera eramango gaituena, aurreztean eta efizientzian oinarritua, deszentralizatu eta herritarren eskuetan egongo dena.



# Duintasun martxen ondoren

Iparraldetik hegoaldera, ekialdetik mendebaldera, martxari zutabeek osaturiko hiru eguneko ibilaldiekin bat eginez bostehun mila manifestari elkartu ginen Madrilan. Zoritzarrez, aurten ere, euskal hedabidetan ia aipamenik ez. Ogia, lana eta etxebizitza, hiru aldarri horiek ardatz, beste aldarrikapen oihukatu genituen, horien artean, herri eta nazioen erabaki eskubidea ere. Eta jada Madrilan ginela euskararen aldeko gure korrika partikularra (petoak jantzita) ospatu genuen manifestarien txalo zaparrada artean.

Hots. Ezin ulertu Euskal Herriko zenbait eragile sozial eta politikoen hoztasuna edo urruntasuna ekimen honekiko. Madrilan bukatzen delako? Zorionez, EH Bilduren sostenguaren berria heldu zenean egunduko poza azaltzeko parada izan zuten ibiltariek, eta baita bertako zenbait lagun ezkertiarrekin hitz egiteko berri horren inguruan. Internazionalismoa joan etorriko bidea da. Askotan aldarrikatu dugu gure borrokarekiko elkartasuna, egun horietan gure halabeharra izan zen gure aldetik gauza bera egitea. Azken finean, gure onurako delako.




## Declaración de Alternatiba al hilo del ataque contra Askapena

Desde Alternatiba denunciaremos este enésimo ataque, por parte de la maquinaria represora del Estado español, que una vez más vuelve a cebarse con las personas más solidarias: con las personas que luchan por la dignidad de los pueblos. Personas implicadas en mil y una batallas, imprescindibles porque desde Euskal Herria siempre hemos considerado imprescindible mostrar nuestra solidaridad y ternura a otros pueblos, al mismo tiempo que levantábamos la voz por las injusticias que se cometían en nuestro propio pueblo.

El gobierno español quiere criminalizar el internacionalismo practicado por Askapena por un doble motivo: por un lado, por ser un valor intrínseco a la izquierda revolucionaria, y por otro, por ser un internacionalismo practicado desde y para Euskal Herria.

Desde Alternatiba nos adherimos al manifiesto de solidaridad internacionalista impulsado por Askapena y exigimos el cese inmediato de los juicios políticos. Enviamos nuestro más sincero abrazo a esta organización hermana en la lucha por la construcción de un mundo más justo, solidario y libre.



# Tras las marchas de la dignidad

Por segundo año, las Marchas de la Dignidad confluyeron en Madrid el pasado 21 de marzo en una gran manifestación, planteada como paso previo a movilizaciones más amplias en torno a reivindicaciones concretas, entre otras: El impago de la deuda según su origen; la defensa de los servicios públicos; trabajo digno y con derechos; defensa de los derechos de las mujeres; futuro para la juventud; no a las reformas; no a los tratados entre gobiernos y transnacionales como el TTIP; derecho a vivienda digna; derecho a decidir de personas, pueblos y naciones; etc.

**Duintasun  
martxak  
marchas de la DIGNIDAD**



Desde Alternatiba y EH Bildu coincidimos con tales objetivos, y por eso estuvimos ese día en Madrid, por más que nos hubiera satisfecho una mayor explicitación del apoyo y reconocimiento de los procesos de autodeterminación en curso en Euskal Herria y Catalunya. También coincidimos con el modo en el que se pretende conseguirlos, si bien corresponderá a los agentes sociales, políticos y sindicales de Euskal Herria decidir el modo, la forma y los tiempos para llevarlos a cabo. Aspectos estos, que deberán tomar en cuenta el resto de los agentes del resto del estado, ya que no siempre se cumple.

La izquierda soberanista vasca ve en estas movilizaciones una amplia alianza transversal entre los distintos pueblos y sus clases trabajadoras, con intereses comunes: establecer auténticas democracias, hacer frente a un sistema capitalista profundamente injusto y transformar de raíz un modelo de UE construido para la defensa del poder financiero. Se trata de compaginar el impulso constituyente propio, formulado en la Euskal Bidea, con la necesidad de potenciar un frente político y social plural, internacionalista, anticapitalista y transversal a escala europea, y que agrupe a movimientos de diferente naturaleza: ecologismo, feminismo, movimiento obrero, de liberación nacional, de defensa de libertades democráticas básicas, etc.

## Alternatibaren adierazpena Askapenaren kontrako erasoaren harira

Alternatibatik Espainiako estatuko aparailu zapaltzailearen enegarren eraso salatu nahi dugu. Berriz ere, elkartasuna gehien zabalitzen dutenen kontra egin dute: herrien duintasunaren alde borroka egiten dutenen aurka. Hamaika borroketan aritzen diren ezinbesteko pertsonak dira, Euskal Herrian beti ikusi izan dugulako beharrezkoa beste herriekiko elkartasuna eta xamurtasuna erakustea, gure herriak pairatzen dituen bidegabekeriak salatzearekin batera.

Espainiako gobernuak Askapenaren internacionalismoa kriminalizatu nahi du, helburu argiekin: ezker iraultzailearen balioak eta, beraz, Euskal Herriarentzat eta Euskal Herritik eginiko internacionalismoa zigortzea.

Alternatibatik Askapenak sustatutako elkartasun internacionalistarako manifestuarekin bat egiten dugu, eta epaiketa politikoen amaiera exijitzen dugu. Besarkadarik beroena helarazi nahi diogu erakunde horri, mundu justu, solidario eta askea eraikitzeke helburuan bidaide dugulako.



# Garai erabakigarriak

Joxe Iriarte 'Bikila' - Alternatiba

Garai biziki interesgarriak dira hauek, zapalkuntzaren egituretan pitzadurak irekitzen ari baitira. Baina, aldi berean, ziurgabetasun garaiak ere badira bidean jarriko dizkiguten trabak (errepresio areagotua barne) gainditzeko egin beharreko ahalegin itzelaren aurrean.

Horregatik, irekitzen diren aukerez gain (Grezia lehen katebegia da) geure ahuldadeak ere kontuan eduki behar ditugu, horiek gainditu ahal izateko.

Aurreko garaietan indartsuagoak ginen kalean instituzioetan baino. Horregatik saiatzen nintzen orduan azpimarratzen borroka soziala, indartsua izanik ere, eremu politiko instituzionalean islatu beharra zegoela. Gogoeta berezia behar da egoera iraultzaile gisa definitutakoetan, instituzio zaharrak desegiten ari direnean eta gizarte iraultzailean indarrean dagoen boterea aldarazteko asmoz kontrabotere-erakundeak sortzen direnean.

Gaur egun, balantza beste aldera makurtzen da. Europa osoan mobilizazioen beherakada ematen ari da, baina, paradoxikoki, estatu gobernua kudeatzeko posibilitatea duten ezkerreko aukerak sortzen ari dira.

Antzeko zerbait gertatu zen PT brasildarraren garaipenarekin. Partidu hau saiatu zen boterera iristen mobilizazio indartsuen bultzadaz eta ez zuen lortu; baina mobilizazioak behera egin zuen denboran irabazi zituen hauteskondeak. Horrek erakarri zuen PTren eskubiratze bat. Partidu bat ez da eskuinera mugitzen bere eliteen ustelkeria hutsagatik. Mugimendu sozialen ahuldadeak zer ikusteko handia du bilakaera horietan, bereziki langile mugimenduarenak. Mobilizazio horiek baitira ezkerreko omen den gobernu bat bere lekuan jar dezaketenak.

Jaime Pastorrekin bat nator esaten duenean Espainiako Estatuan Podemos efektua-ren eragin positiboa dela «kasta botatzen ahal dela» konbentzimendua zabaltzen ari delako; baina aldi berean dio arriskutsua dela gehiengo sozial sumindua 2015eko zikloan gehiengo elektoralera bihurtzearen aldeko diskurtsoa ez bada azpimarratzen haustura-iruditeria baten inguruan loturiko alde aurreko mobilizazioa, autoorganizazioa eta burujabetza.

Horrela bada, gobernu programa eta estrategiak lantzearekin batera zehaztu behar dira helburuak (zorra

ilegitimoaren ukazioa, publikoaren defentsa, murrizketa eta kontrarreforma guztien derogazioa, ekonomia eko-sozial baten zerbitzurako banku publikoa, herri gisa erabakitzeko eskubidea, herritarren demokrazia modu horren sakonduz); eta, aldi berean, praktikara eramanez borroka modu berriak, desobedientzia zibila bezalakoak, kaleak okupatuz, greba orokor gisako modu klasikoagoetan sakonduz eta hobetuz...

Europari dagokionez, han hartzen baitira benetan eta sakon eragiten diguten neurriak, uste dut premiazkoa dela, Euskal Herritik, herri desberdinen eta klase langileen arteko zeharkako aliantza zabala sendotzen ahalegintzea, interes komunetan oinarritua: estatu kapitalista oligarkiko eta antidemokratikoekin amaitzea, baita nazioarteko kapitalaren defentsarako eraiki den Europako Batasuneko gaur egungo ereduarekin ere. Zentzu horretan doa Tsiprasen azalpena: «Grezian irabazita ere, eta ezkerreko gobernu lortuta ere, ez badugu esperimentatzen botere banaketan eta indar harremanetan pausoz pauso aldaketak egitea, gobernu hori geratuko zen sinpleki herrixka galiar bat bezala, isolatua».

Euskal nazioari eta Espainiako estatuari dagokionez. Mendetasunik ez marko estatalarekiko (adibidez, esaten denean Katalunia aske izango dela Espainia bera aske denean), eta hauxe da Podemosek CUPi emandako erantzunaren ondorioa; eta etsai beraren aurrean, kapitalaren eta bere estatuaren botere oligarkikoaren aurrean, ezin gara aritu elkar ezagutu gabe edo bizkar emanez. Benetan, ez dago independentziarik (aldebarkatasunez aldarrikatua edo adostua) helburu horren aldeko gehiengo organizatu eta mobilizaturik gabe. Baina zailtasunak handiagoak izango dira (gauza bera presoen askatzeari edota bake prozesuari buruz) ez bada lortzen Espainiako Estatu beste nazioetan babes herrikoia bat, edo gutxienez, estatuaren ukazio eta errepresio saioekiko kontrako jarrera praktikoa.

Euskal Bidearekin hasitako bultzada konstituziegilea nolabait erlazionatu beharko genuke estatu espainiarrean gertatzen diren aldaketekin irekitzen diren aukerekin. Ezin gara mugatu gertakari greziarrak eta hark sortzen dituen itxaropenak agurtzera, eta menpean gaituen estatuan gertatzen ari diren aldaketekiko (mobilizazio andaluziarrak, mareak eta abar...) eta batez ere Podemosen balizko garaipenak ekarriko lukeen bira kopernikarrarekiko urrun eta axolagabe izan.

***Uste dut  
premiazkoa  
dela, Euskal  
Herritik, herri  
desberdinen  
eta klase  
langileen arteko  
zeharkako  
aliantza zabala  
sendotzen  
ahalegintzea***

## Unicornios enjaulados

Luis Salgado - Alternatiba

Dicen de los unicornios que son seres mitológicos, que jamás existieron y que solo residen en nuestras fantasías. También dicen lo mismo de las sociedades justas, de los sueños de igualdad, de los derechos, de las libertades, aunque en estos casos a todos los que anhelan el poder se les llene la boca con esas palabras mientras su acción se enfoca en lograr exactamente lo contrario. Pero aún más sorprendente son esos seres espectrales que existen por doquier en los reinos muy muy lejanos pero que jamás son vistos en nuestro entorno; los presos políticos.

Amnistía Internacional los define cómo; todo preso cuya causa contenga un elemento político significativo, ya sea la motivación de sus actos, los actos en sí mismos o la motivación de las autoridades. Y a partir de ahí, pocas más definiciones oficiales podrás encontrar, bien es cierto que el Consejo de Europa aprobó una definición propia en 2012, pero si uno la lee, enseguida es consciente de que tal definición está escrita con el fin último de no molestar a las intocables “democracias europeas” y muy directamente al Reino de España y al Reino Unido. La cuestión no es baladí, ya que en esa misma definición Europea lo que se plantea es que preso político es toda aquella persona detenida por sus creencias o ideología política siempre y cuando no medie actuación terrorista o apoyo a la misma, y claro, todos a aplaudir con las orejas aún sin pensar que eso dejaría fuera de dicha definición a Mandela o a Gandhi entre otros,

y ya puestos, y resumiendo, en Europa no existen presos políticos ya que todos y todas las detenidas lo son por pertenencia a banda armada, o por dar cobertura a la misma. Punto final, nada que ver aquí. Y si en Ucrania el Gobierno de Poroshenko ilegaliza a todo el Partido Comunista y detiene a sus líderes, estos no serán presos políticos a los ojos de la UE ya que según ellos, el Partido Comunista Ucraniano apoya los actos de terrorismo de los prorrusos del Este. (Usando su terminología) Aunque no tendría que ir a buscar un ejemplo tan lejano, y toda Euskal Herria lo sabe, sino tuviera miedo a que mis palabras me convirtieran en otro unicornio enjaulado.

Sin embargo, esos mismos que aseveran que en todo el Mundo Occidental no existen presos políticos, garantizan y testifican su existencia en Cuba, China, Rusia o Venezuela, y cierto es, yo no voy a negar que en esos países puedan existir presos políticos si nos centramos en la amplia definición de Amnistía Internacional, lo que ocurre es, que si nos basamos en la definición del Consejo de Europa, por favor Dioses de la Democracia, no nos jo... con esa definición los presos políticos son como los unicornios, jamás existirán, ya que todo Estado tiende a considerar terrorista a quien desafía las reglas del juego, que son creadas (y aquí está el meollo de la cuestión) por el propio Estado. Por tanto, lo primero que hay que aclarar son las medidas del terreno de juego y de las porterías, lo que en Cuba se considera ataque a los Derechos Civiles y Políticos también debería

ser aplicable al otrora Imperio aún a riesgo de enfadar a ciertos sectores Cristo-fascistas. Todo lo demás solo lleva a discusiones de besugos. Jugar con distintas reglas no puede dar nunca un resultado satisfactorio para las partes, y en esas andamos. Mientras decenas de medios de comunicación venezolanos claman a través de las ondas por un golpe de estado, desde la Europa democrática hablamos de falta de libertad de expresión al tiempo que en España se cierran periódicos por connivencia con el terrorismo simplemente porque su línea editorial no es del gusto de quien gobierna o bien, la ideología es coincidente.

En eso se resume el famoso “Todo es ETA” que puso de moda el Sr. Garzón, basta con que los objetivos ideológicos sean coincidentes entre una banda armada y un movimiento político y/o social para detener e ilegalizar un pensamiento, y lo que entonces y ahora se aplica en Euskal Herria, de un tiempo a esta parte se extiende por todo el Reino y la persecución al movimiento anarquista parece confirmar una tendencia (No olvido que el PCER sigue ilegalizado también) esa tendencia que dice;

*Cuando vinieron a por los abertzales  
no dije nada porque yo no era abertzale  
Cuando vinieron a por los Anarquistas  
no dije nada porque yo no era anarquista  
Cuando vinieron a por los árabes  
no dije nada porque yo no era árabe  
Ahora vienen a por mí pero*

**YO NO CREO EN LOS UNICORNIOS**

# Berdintasun legea, zer ospatu gutxi

*Diana Urrea eta Lur Etxeberria - EH Bilduko legebiltzarkideak*

Badaude, batetik, letra larriz idatzitako legeak eta badaude, bestetik, paperean geratzen direnak. Tamalez, Berdintasunerako Legean jasotako arauak eta neurriak betetzea borondate kontua izaten ari da. Lege batena baino gomendio-sorta baten antz handiagoa du. Berdintasunerako Legeak aldaketa batzuk ekarri dituela ukatu gabe, askoz gehiago dira paperean geratzen ari diren arau eta neurriak.

Legeak aldaketarik inon eragin badu, erakunde publikoen barne-antolaketan izan da, Udaletan, Aldundietan eta Jaurlaritzan. Lehenago ez-ohikoak ziren berdintasun-sailak eta -unitateak orokortu egin dira, gero eta hobeto prestatutako pertsonen osatu, koordinazio-guneak eta elkarlanerako sareak ugaritu eta modu planifikatuan lan egiten ari dira gero eta gehiago. Neurri horiek ezinbesteko baldintza dira erakunde publikoen jardueran genero-ikuspegia txertatzeko, emakumeen eta gizonen arazoak, beharrak eta interesak kontuan hartzeko, alegia; baita berdintasun-politikak egiteko ere. Ezinbesteko baldintzak dira, baina ez dira nahikoak. Izan ere, ahizpa pobrea izaten jarraitzen du berdintasunak, eta berdintasun-sailen eta programen finantzaketa beti da gutxiegi, beti da eskasa, eta erabat mugatzen du behar besteko indarrez eragiteko ahalmena. Emakumeen eta gizonen berdintasuna gerorako utz daitekeen helburutzat hartzen da, bigarren mailakoa, zer esanik ez krisi garaian. Laburbilduz, lehenetsunik ez ematea, baliabide mugatuak eta finantzaketa eskasa porroterako osagai ezin hobeak dira, eta inertziak aldaketarako aukerak jaten ditu.

Legeak aldaketarako potentzial handiko elementuak proposatzen ditu, politika publikoak egiterakoan genero-eragina ebaluatzeko azterketak egiteko betebeharra kasu. Hau da, edozein politika publiko egin aurretik, politika zehatz horrek emakumeen eta gizonen bizitzan gain izango lukeen eragina aztertu beharko litzateke eta, behar izanez gero, neurri zuzentzaileak ezarri. Potentzial handiko neurria baina, hamar urteren ondoren, garatzeke dagoena.

Erakunde publikoak ez ezik, hedabideak eta publizitatea ere interpelatzen ditu Berdintasunerako Legeak, baina gehienek horietako asko balio eta estereotipo sexisten habia izaten jarraitzen dute, Legeari bizkar emanda. Legeak debekatu egiten die pertsonak sexu-objektu gisa aurkeztea, eta sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatzeko betebeharra ezarri, edertasun-kanonetatik eta estereotipo sexistetatik aparte. Irizpide interesgarriak, inondik inora, baina errealitatekin baino desioen mundutik gertuago daudenak oraingoz. Edozein modutan, gure ustez larriena da: Euskal Irrati Telebista publikoa behar lukeenak ere ez dituela irizpide hauek jarraitzen. Legearen ahulezia nabarmena da esparru honetan. Hedabideak eta publizitatea ez dira

interpelatuta sentitzen, baina Jaurlaritzak interpelatzen al ditu?

Erabakigune eta botereguneei dagokienez, emakumeen eta gizonen parte-hartzeak parekidea behar duela izan jasotzen du Berdintasunerako Legeak. Emakumeek, baina, erabakigune nagusietatik baztertuta jarraitzen dute. Apartheid egoera da araua eta parekidetasuna salbuespena. Erakundeetako ordezkari politikoei dagokienez, emakumeen eta gizonen presentzia orekatu samarra da posturik ikusgarrietan, Jaurlaritzako kontseilarien eta Aldundietako diputatuen kasuan, esaterako. Baina egoera oso desorekatua da gainontzeko postuetan, kontseilari-orde, idazkari eta zuzendaritzatan. Emakume alkateak ere gutxiengo dira, eta zer esanik ez sindikatuen eta patronalen zuzendaritzetan eta enpresa handien administrazio-kontseiluetan, gizonen erreserbatutako guneak oraindik ere.

***Emakumeek erabakigune nagusietatik baztertuta jarraitzen dute. Apartheid egoera da araua eta parekidetasuna salbuespena***

Emakumeen bizi-baldintzak hobetzea ezinbestekoa da berdintasuna benetakoa izan dadin; baina bizi-baldintzak hobetzerik ere ez du ekarri Legeak. Ezer gutxi egin du Jaurlaritzak gizonak eta erakunde publikoak pertsonen zaintzan inplikatzeko. Ezer gutxi egin da, era berean, emakumeen lan-merkatuko lan-baldintzak hobetzeko. Alderantziz, Jaurlaritza bera enplegu publikoa suntsitzen ari da, emakume askoren enpleguak, Osakidetzan eta Hezkuntzan kasu. Emaitza: emakumeek galtzen jarraitzen dute, lanaren banaketa desorekatua sufritzen, lan-merkatuan bigarren mailako enplegatu eta etxeko zaintzaile nagusi. Paradoxikoa dirudien arren, emakumeek, bizitzaren eta ongizatearen arduradun nagusiak, ez dute bizitzaz eta ongizateaz gozatzeko eskubiderik.

Berdintasunerako Legeak beharrezko arau eta neurriak jasotzen ditu gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun egoera batetik parekideagoa izango den egoera baterantz pausoak emateko; berdintasun formaletik berdintasun errealera igarotzeko tresna baliagarria izan liteke; baina ez da tresna eraginkorra izaten ari, batez ere Legea gauzatzeko borondate politikoa falta delako. Urteetan gerorako, biharko, utzi da eginkizun hau; baina bihar iritsi da, eta bihar orain da.

# Opresores patriarcales y lacayas del sistema

Irantzu Varela

Me parto. Me río por no llorar -o ponerme violenta- cada vez que alguien trata de convencerme de que ya hemos alcanzado la igualdad, de que las reivindicaciones feministas ya se han conseguido y que, a nada que seas un poco espabilada y pongas de tu parte, puedes ir por la vida de ciudadana de primera, y pedir que te traten como a la gente. O sea, como a un hombre.

